

MEZA BERRIYA

Jostirudia egintza bakarrian

Barriola-tar Juan Avelino'k idatzia

ETA

Eibar'ko Euskal-jayetan
saritua 1908^{an}

DONOSTIYAN
J. BAROJA TA SEMEEN MOLDISTEGIAN

1909^{an}

Egintzalliak edo Agerliak

BRAULIO	Erriko organista.
NIKASIO	Morroya.
JULIANCHO	Alkatiaren semia.
KARNABA	Baserritarra.
TARIÑA	Baserritarraren semia.
CHOMIN	
ALKATIA	

EGINTZA BAKARRA

Iruditegiyan agertuko da sala (gela) ondo šamar antolatuba. Eskubitara bi ate. Aurrenekua BRAULIO-n gelakua. Bigarrena sukalde ta eche barrenerako. Ezkerretara, leyo bat zabaldua. Atzian, atia beti ichiya, goiko aldian zintzarri bat zintzilik daukala. Eskuitara kucha edo armario bat zagar errenkada bat gañian dubela eta ezkerretara erloju luze bat. Aurrerago eskubitan mai bat, eta ezkerrian armoniun edo piano bat; ešeri-alki batzubek. Gain guztiyetan abestutzeko ingi edo kantatzeko paperak. Mai gañian zintzarriya. (Ezker eskubiyak ikuslienak.)

LENBIZIKO IRUDIA

BRAULIO

Erriko organista. Gizaseme urtietan sartua, ikusmen labur edo ichu šamarra. Egongo da atzeko atian agur egiñaz eskuakin norbaitzubek balijuaskete bezela.

BRAULIO

Agur... agur... poliki jechi... gero arte... (*Aurreratuko da eskuak igortziyaz.*)

¡Pozgiro nago! Sayo onek makiñachobat baliyo nau
¡Ederki atera da! ¡Ederki! ¡A!... Gaur ikusiko dute
Braulio organista zein dan. Erri dana zalantzan da o
nere meza berriya zer izango ote dan, eta entzun nayian
Eliza guztiya beteko dute... ¡Zer arro aterako naizen
bukatzian, danen erditik, utzirik batzubek arrituta abua
zabalik... eta beste asko nere ondamuz ezpañak
estuturik! Zergatik nere meza berriya ¡ederra da!
¡Orren gloriya... ta Kredua... ta Santus'a... ta...
dana... dana da... nik uste det berdin gabia. ¿Eta
Alkatiak? ¿Zer esango ote du? Chit biarra det dana
ondo ateratzia... Bestela... (*Erlojuari begiratuaz;
iruditegiyan ez palitz, patrikakuari.*) Bañan, ¿zer ordu
det? Bederatzit'erdiyak. Aguro ibilli bear det. (*Mai
gañian dagon zintzarriya juaz.*) ¡Trinn... Oraindik
dana jasotzeko ta...

II^{en} IRUDIA

BRAULIO TA NIKASIO

NIKASIO (Agertuko da sukaldeko atetik.) ¡Jauna!
 BRAULIO Ator abek jasotzen laguntzera.
 NIKASIO Bai jauna. (*Nikasio-k bilduko ditu paper guztiyak eta eramango dizka izketak agintzenduben bezela Braulio-ri eta onek antolatuko ditu danak.*)

BRAULIO ¿Eta Mantoni?
 NIKASIO Jantzitzen ari da. Elizara juateko.
 BRAULIO (¡Nere alabachua! ¿Nork esan bera gatik egin detala meza berri au, ta bere ona gatik nijuala gaur abestutzero!... ¿Ezer ote daki alkatiak?)

NIKASIO *Leyo ondoko esheri-alki etatik paperak artuaz ta noizian-bein kalera begira.*) ¡Gizarajua! ¡Orain ere or dago Mantoni'ren erreñua non ikusiko ote duben! ¡Eztakit nik zertan ibiltzen diran orrela! Mutillak nai... neskak zer esanez... eta iškinchoka, cheletaka.. eta solomosuetan egun guztiyan. (*Artuko du pilla bat eta eramango dizka nagusiyari biurtuaz berriz leyo ondora.*)

BRAULIO ¿Geyo badago?
 NIKASIO Bai jauna. (¿Ni ere orrela ibilliko ote naiz? ¡Gezurra dek! Neri ezkontzeko gogua datorkidanian, jarriko naiz kale ertz batian eta aurrena azaltzen dan neska gaste edo... neska zar politenari... elduko diyot besotik eta ¡zapla! apaizaren echera paper billa.)

BRAULIO (*Artuaz Nikasio'k azkenik ekartzen dizkanak.*)
 ¡Bapo!... Orain lokarri batekin lotu eta...

NIKASIO Ekarriko det lokarriya.
 BRAULIO ¡Y Nikasio! ¿Ez alda berririk nere lagun zar Mateo nik?
 NIKASIO Ez jauna.
 BRAULIO Arritzen nak... Ekarriz zak lokarriya.
 NIKASIO Banijua. (*Irtentzeakuan begiratuko du kalea.*) Or dago oraindik zai. Bera gana nijua sukaldeko atetik, ia zerbait eroritzen ote dan.

III^{en} IRUDIA BRAULIO (*bakarrik*)

BRAULIO (*Betaurak gordiaz.*) ¡Mateo-n berririk ez!... Aginduzian bialiko zirala berakin Elizan abestutzen duben mutil gaste bat, izugarrizko abeslari ederra, ta ez gaste onenik eta ez bere berririk ez det. ¿Zer gertatu ote

zayote? ¡Nai nuben bada nik mutill ura gaur etortzia Eliz-jaya era-bat ona izateko... Guazen orain jantzitzera berandutu baño len.

(Juango da bere gelara, eskubitan aurreneko dagonea.)

IV^{en} IRUDIA NIKASIO (*Bakarrik*)

NIKASIO

(Sartuko da esku batian dirua ta bestian eskutitz edo karta batekin.) ¡Bi pesetakua au ekartziagatik! ¡Amar urtian ez aldia ezkonduko! ¡A! ¡Akulumendi gizarajua! Beti or dabil kale ertz guztiyetatik begira nun ikusiko ote duben bere andregaya.- Eta ¿zer jartzen ote diyo emen, ni bi pesetaz saritzeko? Utsa... ¡nere pišpolin maitia... Nere zuri gorri eder sagar panpandoja gošua! Zu zera... zu... zu... eta neri ¿zer zait zer dan? Nagusiyak baleki bere alaba nola dabillen eta ni naizela gobara-zatar eraman-ekarriya. Organuari baño ots aundiyagua aterako liyoke nere buruari, emango liake kankarrekuakin... ¿Eta neri zer? Mantoni gatik egiten badet. Albanezake bigar bertan ikusi gure panpoša orrekin ezkondu!... Gañera? nola utzi lan chiki abek egin gabe? Zer nai gauza gatik... pesta bat... noiz nai bikua... ¡¡Berrogei urtian ez aldia ezkonduco!! Eraman zayotan Mañtoni gašuari, len galdezka nuben ezer bai ote zan eta...

(Irtentzeakuan Nikasio, sartuko da Braulio.)

V^{en} IRUDIA NIKASIO ta BRAULIO

BRAULIO

(Oju eginaz) ¡Nikasio!

NIKASIO

(Sukaldeko ate ondolik nagusiyari erantzuteko biurtzen danian, eskuan daukan ezkutitza eskutatukodu bularrian alkandorapian, bañan ikusliak ondo ikusteko eran.) ¡Jauna!

BRAULIO

¿Lotu aldituk?

NIKASIO

(Etorriko da berriz mayera eta patrikatik lokarriya ateriaz asiko da danak lotutzen.) Beriala jauna.

BRAULIO

¿Ez alda oraindik ezer berririk Mateonik?

NIKASIO Ez jauna.

BRAULIO ¿Ez ote da etorriko? Baina, ala aginduta...
(*Entzungoda atzeko zintzarriya.*) Norbait dek ua...
¿bera ote da?... utzi... nik lotuko dizkiat. (*Juango da Nikasio. Braulio-k artuko ditu lotutzeko paper guztiyak eta Nikasio berriro sartzeakuan eroriko zaiska danak lurrera.*) ¡¡Bapo Braulio! ¡¡Ederra egin dek!!
(*Agertukoda Nikasio beste eskutitz bat eskuan dubela eta ikusirik nagusiyari gertatu zayona gordekodu len bestia eskutatu duben lekuan eta asiko da jasotzen.*)

NIKASIO Utzi bitza nik jasoko ditut.

BRAULIO ¿Zein zan?

NIKASIO Karterua beorrentzat karta batekin. Artu beza. (*Bat emanaz.*) Bart ekarri biar omen zuben, bañan trena oso beandu etorri zala, esan nau, ta gaurko utzi zitubela danak.

BRAULIO Maiz egiten dik ori. (*Jarriko ditu betaurrak, artukodu eskutitza eta erekikodu Mantonirentzat zana.*) ¿Izenik gabe?... «Mantoni ederra...» ¡e! «Nere biyotzeko izarra...» ¡e! ¿Zer eman nau neri orrek? «.....»
(*Irakurriko du bukaeraño ao pian askendurik argi jartzen dubenekin.*)
.....«eta aita nola dan erdi ichuba, juango naiz zure ondotik bate keskarik gabe...» ¡bai e!
..... «*Julián.*»
¡Nikasio!

NIKASIO Jauna.

BRAULIO ¿Nork emandik au?

NIKASIO Karteruak.

BRAULIO Eta, ¿noletan zekiyen neretzat zala?

NIKASIO Izenian, nere ustietan.

BRAULIO Ia ikusten dekan ezer. (*Erakutziyaz, bañan eskura eman gabe.*) ¿Ichuru egin ote naiz biziro?

NIKASIO (*Gogoratuaz bere okerra.*) (¡¡Arranua!! ¡Ederra egin det!!) Jauna karta ori ez da beorrentzat.

BRAULIO Bazekiat.

NIKASIO Bekar orduan.

BRAULIO ¿Au iri?

NIKASIO Bai bada... ez da beorrenata... ara au da beorrentzat. (*Aterako du bestia bularretik eta emango diyo Braulio-ri.*)

BRAULIO (Azarre antzian.) Ekatzak, eta au eman biar diyokanari esan akiyok, dagon bezelašen dijuala beriala izebaren echera, eta dagola an ni juan artian billa. (*Nikasio bertan geldi.*) Aditu dek... dijuala beriala ta ez detala ikusi ere egin nai... ¡Nere išillik gauz abekin... ¡hun!

NIKASIO (*Juanaz poliki-poliki*) ¡Kaikua nak!... ¿Au egiteko eman alnazki bi peseta?... Mantonik gašua (*Irtengoda sukaldeko atetik.*)

VI^{en} IRUDIA BRAULIO (*bakarrik*)

BRAULIO (*Egongo da azarre Nikasio eskutatu artian, eta bat batian alaituko da eta egingo du par chiki bat.*) ¡Barrena parrez eta arpegi azarria jarri biar! Zer esanen gatik! Emango nuke biziaren erdiya ezkontza ori egitiaren gatik, eta alaz guztiyaz ere kopeta illuna jarri eta azarre agertu biar. ¿Eta zergatik?... Arrebak esan ziran ezkeroztik Julian, alkatiaren semiak, nere alabari begiratzan ziyola, sartu zitzaidan biyotzian poz aundi bat eta, zergatik ez dakidala, esaten nau beti išil-išilik ezkontza ori egingo dala. ¡Gaurko nere meza berriya ondo aterako balitz!... Gauz abekin astuta negoan beste eskutitzaz. (*Erekiko du*) ¿Zeñena ote da? «Mateo Goibeltz» ¡A! ¡Nere lagunarena! ¿Zer ote du? «Adízkide maitia: Nik agindutako abeslaria ezinliteke juan gaur;... zergatik bigar goizian degu... Eliz-jaya... (*Buruari eragiñaz.*) bañan itz ematen dizut orreratuko dala zuben meza nagusiyaren garairako. Zaude bada keskik gabe. Betiro zure adizkidea. – *Mateo Goibeltz.*» Atzoko karta. Orrengatik esan nau neri Nikasio-k bart etorri zala. Ondo dago. Esaten dubenez laišter emen da ta nik nai bezela aterako da dana. (*Jokodu mai gañian dagon zintzarriya.*)

VII^{en} IRUDIA BRAULIO ta NIKASIO

NIKASIO ¿Oju egin du?

BRAULIO ¿Zer egin du Mantonik?

NIKASIO Irten da.
 BRAULIO Ondo dago. Ni mezetan naizela etortzen bada norbait nere billa, bialdu Elizara.
 NIKASIO Bai jauna.
 BRAULIO Eta erakutzi non izaten naizen.
 NIKASIO ¿Nai aldu paper abek eramatia?
 BRAULIO Ez, neonek eramango dizkiat. Jarri itzak danak alkarrekin (*Sartzen da bere gelan*)

VIII^{en} IRUDIA NIKASIO (*bakarrik*)

NIKASIO ¡Gajua! ¡Polita jarri da negarrez! Nigmatik... ni kaikua naizelako ¿Topo egin ote du? (*Leyotik begiratuaz.*) Ez... or dago... ¡Gizarajua! ¡Albaniyoke zerbait esan! (*Besuakin adi-arazi nayian.*) Juan da... bai... bai... orainchen... ¡oi! onera dator... ¿Zer nai ote du?... Jakin ote du gertaera? (*Entzungo da ateko zintzarriya.*) ¡Or da!... (*Juango da atera eta erekitzen dubenian sartuko da Juliancho bultziaz Nikasio-ri.*)

IX^{en} IRUDIA NIKASIO ta JULIANCHO

Juliancho da gaste bat askeneko sortze berri guztiyaz jantziya.

JULIANCHO ¿Non da, non da nere Mantoni?
 NIKASIO (*Atzian iduki nayian.*) Gizona zaude išilik. Entzungo dizu.
 JULIANCHO Ori nai det bada dik, entzutia.
 NIKASIO Nagusiyak esan nai det.
 JULIANCHO ¿Nagusiyak?
 NIKASIO (*Gela erakutziyaz.*) Bai, or dago.
 JULIANCHO ¿Esan ez nazu bada irten dala?
 NIKASIO Ez... Mantoni irten da.
 JULIANCHO (*Ojuka.*) ¿Mantoni?... ¿Nere karta artuta?
 NIKASIO Išo... zuaz emendik... aterata ilko gaitu.
 JULIANCHO Eztet nai... ¿nun da Mantoni? (*Juango da sukaldeko atera eta galasiko diyo Nikasio-k, gero asiko da Braulio-n gelen aurrian ojuka eta orduan ereki ta agertuko da Braulio arrituta an egiten duten otsakin.*)
 NIKASIO (¿Zer gertatu biar du emen?) Guazen Juliancho...

JULIANCHO ¡¡Mantoni!! (*Erekiko da atia eta ikusiko du Julianchok nola datorren Braulio.*) ¡oi! Braulio jauna.
NIKASIO ¡Nagusiya! ¡Guriak egin du!

X^{en} IRUDIA
LENGUAK eta BRAULIO

BRAULIO ¿Zer da ots au?
JULIANCHO ¡Ai, ama!
BRAULIO (*Julian-i.*) ¿Zer zabilta zu emen?
JULIANCHO Ni... ni... ni...
BRAULIO (*Nikasio-ri.*) Bai zu.
JULIANCHO Ni... ni... ¡ai ama!... ¡ai ama!
BRAULIO (*Nikasio-ri.*) Nikasio ¿Zein da au?
NIKASIO Au... au... ¿Ez aldaki zein dan?
BRAULIO ¡A! ¡Arranua!... orainchen gogoatzen naiz.
JULIANCHO (¿Ezagutu ote nau?)
NIKASIO (¿Bai ote daki?)
BRAULIO (*Poliki-poliki betaurrak patrikatik atera ta jantziyaz.*)
Zu zera... bai... bai... nere burua. (*Jantziko ditu betaurrak.*)
JULIANCHO (¿Zein ote naiz?)
NIKASIO (*Julianchori.*) Zure atzeneko borondatia agindu nai banazu.
BRAULIO Mateok bialtzen nauen abeslariya.
JULIANCHO ¿Ni?...
NIKASIO (¡Oi! ¿zer diyo orrek?)... (*Gero Julianchori.*) Esan bayetz, esan bayetz.
JULIANCHO ¿Ni?... bai... bai... ura bera.
BRAULIO Orainchen artu det bere eskutitza, bart etorri biar zubena... ¡Tren oyek ain gaizki ibiltzen dira...!
JULIANCHO Bai jauna... bai.
NIKASIO (*Entzungo da ateko zintzarriya.*) ¡Oi!... ¿Bestia ote da?... ¡a zer zalaparta!
BRAULIO Nik arri esan bezela nai nuke, Ofertoriyoko garayian zerbait abestutzia.
JULIANCHO ¿Abestu?
NIKASIO (*Julianchori.*) Esan bayetz.
JULIANCHO Beorrek nai badu.
BRAULIO Gounod-en «Agur Maria»... edo...
JULIANCHO ¿Gounod-ena?... Ori badakit. Eta ¿nik bakarrik abestu biar aldet.

BRAULIO Bai, badakit oso yayua zerala. (*Entzungoda berriz zintzarriya.*) Nikasio ¿gortu egin alaiz? ¿Ez alde zintzarriya entzuten?

NIKASIO ¿Entzun? Bai jauna, bai, bi bider jo dute...

BRAULIO Eta ¿zer egiten dek bada ereki gabe?

NIKASIO (Ez nubelako nai... ¿Bestia ote da?) Banijua... (*Erekiko du atia ta sartuko da mutil gaste bat, Chomin (Artuko ditu ematen dizkatenak eta juango da itzik egin gabe.)*)

BRAULIO (*Julianchori*) Eseri zaite or, beriala etorriko naiz eta alkarrekin juango gera.

NIKASIO Jauna... paper billa dator Chomin.

BRAULIO Eman akizkak eta ondo jaso ditzala. (*Julianchori.*) Orduan Gounod-en «Agur Maria» artuko det.

JULIANCHO Buruz badakit.

BRAULIO Obe, nik biar det ordian, organurako. (*Ate ondora ekarriyaz*) Nikasio Esan zak sukaldian, sartzeko gaur eltzian lukainka andi bat.

NIKASIO Bai jauna.

BRAULIO Gaur egun aundiya da. (*Juaten dira Braulio bere gelara ta Nikasio sukaldera, gelditurik bakarrik Juliancho.*)

XI^{en} IRUDIA

JULIANCHO (*bakarrik*)

JULIANCHO ¡¡Bakarrik!! ¿Zer egin biar det nik orain? ¿Gelditu?... ¿Joan?... ¡Ai ama! ¡au larriya!... Braulio Jaunak esan nau naizela ez dakit zein... Nikasio-k bayetz esateko; gizarajuak chinistu du... ta orain nago ni emen zein naizen jakin gabe, ta zer egin ez dakidala. Igaz egiten badet... arras azarratuko da... jakingo du ni zein naizen eta... ¡edozeinetortzenda gero alaba eskatzera! Gelditzen banaiz... abestu egin biar Elizan... obe det... ¿Nork daki ez ote dian arrituko nere estarri ederrarekin? Zergatik ni yayua naiz... eta baita eres-egiten ere. Badet nik neonena zortziko bat... ¡ui! ¡izugarritzua! Mantoniri donkitua. Du izena: ¡Biyotz eriya!... Emen dakart gaur berari emateko asmoakin... (*Aterako du patrikatik.*) Ara... ¡Biyotz eriya!... Mantoniri... Nik... Ertz batian esku bat biyotz bat eskañiyaz... biyotz gañian sua... eta be aldian iru-odol

thantho ollo odolakin egiñak. Ezpetan egon nitzan olluen edo neonen odolakin egin, bañan berdin zala irudituta olluenekin egin nuben. ¿Eta zortzikua?... ¡A! da ¡izugarrikua! ara... (*Erekitzenda Braulio-n gelako atia Julian abestutzer dijuanian.*) ¡A! badator... gorde dezatan... eta Jaungoikoak lagun egin dezaidala.

XII^{en} IRUDIA JULIANCHO ta BRAULIO

BRAULIO (*Aterakoda sombreroa garbituaz eta besopian Gounod-en «Agur Maria» dubela.*) Guazen... Zu gaste. ¿Zer izen dezu?

JULIANCHO Nik Juliancho

BRAULIO ¿Juliancho?

JULIANCHO (¡Ai ama! ¡zer esan det!)

BRAULIO Nola etzian Mateo-k ezer esaten.

JULIANCHO (¡A! ¡au lasaitazuna!)

BRAULIO Beas Juliancho ¿e?... Bestiaren izena bera.

JULIANCHO ¿Zeñena?

BRAULIO Beste gaste batena... Nere išilik eskutitzak egiten dubena.

JULIANCHO ¿Bai e?

BRAULIO Emen dakat gaur goizian egin dubena.

JULIANCHO ¿Gaur goizekoa? (Koncho, ¿ortako eman aldiyot nik bipestakua?)

BRAULIO Guazen...

XIII^{en} IRUDIA NIKASIO, gero KARNABA ta TARIÑA

KARNABA da baserritar bat beltzez ondo jantziya, jai egunean oi duten bezela: alkandora zuriya *botak* edo abarketa berriyak, eskuan makilla; da oso ausardia ta zakarra. TARIÑA du semia. Da mutil gaztecho bat soñian dakarren jantziya baño lenago luzatu dana eta orrengatik geldituko zayo besuetan ta anketan motz-samar. Da oso lotsatiya, sartuko da *boina* eskuandakala eta erabiliko du beti *jiriaz*. Jateako gordeko du luzeka bilduta patrikan ondo ageriyen. KARNABA-k ez du *boinarik* erantziko.

NIKASIO ¡Joan dira!... ¿Zer gertatuko ote da gaur emen? Zerbait bai (*Entzungo da barrenen indar aundiyakin esanda.*)

;;Ai Maria!! ¿Zein ote dator? (*Erekiko du atia ta sartuko da Karnaba geldituaz atian Tariña.*)
 ;;Eup!!
 KARNABA Ongi etorri.
 NIKASIO
 KARNABA On Braulio Echekoskor!!!... Jo aurrea seme...
 NIKASIO Orainchen irten da.
 KARNABA ¿Irten?... ¿Nora?
 NIKASIO Elizara.
 KARNABA ¿Guri ichon gabe?
 NIKASIO (¿Zein ote dira?) Meza nagusira joan da.
 KARNABA Gu gabe ez dago mezarik.
 NIKASIO (¿Apaizak ote dira?) ¿Zubek gabe?
 KARNABA Sheme... orrek etzekik gu zein geran.
 TARIÑA Elizara joan biarko degu.
 KARNABA ¿Elizara onela?... gezurra dek... (*Abestuko du ao pian, abeslari jatorrak oi duten bezela.*) Ume eder bat i... juu!! Eztarri au zikiña zio... garbitu egin biar diagu.
 NIKASIO (Sartu zak erratza.)
 KARNABA Y... ¿zer dakak jateko?
 NIKASIO ¿Nik? ¿Ostatua dala uste aldezu zuk au?
 KARNABA Ez... On Braulio-n echia.
 NIKASIO Eta...
 KARNABA (*Indar geyagokin.*) ¿Zer dakak jateko?
 NIKASIO Baburrun zuriya...
 KARNABA Iretzat.
 NIKASIO ...lukainkakin.
 KARNABA Ongi zio... ekarri zak biyentzat lukainka.
 NIKASIO (¿Nagusiyaren gaurko kutiziya! ¿Beriala ekarriko diat!)
 KARNABA Abil pizkor.
 NIKASIO Bañan jakin gabe...
 KARNABA Berriketa guchi.
 NIKASIO (Ekarri egin biarko diyotet ¿Nagusi gizarajua! ¿Bañan ¿zein dira abek?)
 KARNABA Eseri ari seme... (Nikasio sukaldeko atian sartzeakuan.) ¡Y!... ardua onena.
 TARIÑA ¿Zer esango dute besten echian onela ibillita?
 KARNABA ¿Abestutzea ez ator? Orrenbeste biar diagu bada.
 TARIÑA Bai bañan... Braulio jaunen baimenik gabe...
 KARNABA Ago išilik. Ik eztakik Jainko chikiyen berririk. (*Len bezela abestuez.*) Ume eder bat... i... ¡ejem!!... ikusten dek... ezin diat.
 TARIÑA Nik bai ordian, eta gañeaz berandutuko zaigu.

KARNABA Ez, orain asiko dek meza eta gure garairako joango gaituk. (*Ekarriko ditu Nikasio-k amaiketakua egiteko biar dian gauza guztiyak lukainka, plater, ogi, bañan ez botill ardua.*)

NIKASIO Ara emen guztiya.

KARNABA Ondo zio. Seme jantzak. Ume eder bat... (*Oju egiñaz Nikasio-ri.*) ¡¡i!!

NIKASIO ...Ikusi nuben... (*Bere doñuan.*)

KARNABA ¿Ikusi?... Eztiat bada nik ikusten... Ekartzak ardua.

NIKASIO ¿Ardua?

KARNABA Bai ta azkar.

NIKASIO (¿Bañan zein arrano dira abek?) (*Joatenda.*)

KARNABA Seme jantzak asko ondo abestutzeko.

TARIÑA Ez dakat gogorik.

KARNABA Utzi ezak orduan. Nik jango diat ire orde.

NIKASIO Ara ardua.

KARNABA (*Basora ardua botiaz.*) ¿Bai aldakik gu zein geran?

NIKASIO Nik ez.

KARNABA ¿Egundaño ikusi alde karnaba kantari? (*Ustukodu basua*)

NIKASIO Basuan bai.

KARNABA Etziok bada basuan. (*Baso ustua eskuan dakala esango du ezetz eta berakin bularrian juaz adiarazi naikodu bera dala.*) Emen zio.

NIKASIO Ardua bai.

KARNABA ¿Zer ardo? Karnaba. Ni nak Karnaba eta au Tariña.

NIKASIO (¡A zer choriyak!)

KARNABA Gu gaituk...

TARIÑA Aita, berandutuko zaigu.

KARNABA Bai, guazemak... bukatu diat dana... (*Alchako dira biyak. Karnabak aterako ditu nagiyak besuak zabalduaz eta azkenik jasoko ditu galtzak gerritik elduta.*) Ederki niok orain... guazemak. I... ¿non da Eliza?

NIKASIO Emen aurrian, jechi ta beriala.

TARIÑA Badakit nik aita. (*Joango da berriz Karnaba mayera erango du baso bat ardo eta artuko du eskuan ogi puzka bat.*)

KARNABA Guazemak orduan... Ume eder bat ikusi nuben... (*Eskutatuko dira abestuez.*)

NIKASIO, gero CHOMIN

- NIKASIO ¡¡Bejuandeizutela!! ¡An dijuaz ez agur eta ez ariyo!
¡¡Ezta eskerrik ere!! ¿Zein ote dira oyek? ¡Karnaba?...
¡ja, ja, ja!... putria esan bazuben. Jan du lukainka azal,
soka ta guzti... ogiya dana ta ardua iya botillá osua.
¿Garbitu ote du eztarriya? Ume eder bat... bat ezik bi
ere ikusiko ditu batian. ¡Nagusi gizarajua!! Bere
gaurko kutziya lukainka zuben eta... *lukainka* orrek
jan diyo (*Entzungo da zintzarriya.*) ¿Nor ote da?
(*Erekikodu atia ta sartuko da Chomin.*) ¿Zer abil
Chomin?
- CHOMIN Organista-ri bere gelan astu zayon paper baten billa.
NIKASIO ¿Zer paper?
CHOMIN Meza-ren bukaeran jo biar dubena, bazekiat nik zer.
NIKASIO ¿Nola dijua meza?
CHOMIN Ederki mutill, nik uste diat chit ederetsiko dala.
NIKASIO Naiko nitek Chomin.
CHOMIN Ala izango dek... ia ikuzi zak. Soraturik ziokan
bikariyua guri entzunik eta *Dominus bobiscum* esan
biarrian ¡*Bejuandaikela Braulio!* esan dik.
NIKASIO (*Parrez.*) ¡Bapo!
CHOMIN ¿Ta alkatiak? *Et inkarnatus est* abestutzeakuan,
aldariari atzia emanaz belaunikatu dek... eta *aguazillak*
biurtu dik.
- NIKASIO Ta i, Chomin. ¿An aldago Julian, Alkatia'ren semia?
CHOMIN ¡Izan ere! ¿Zertatik joan da ura? Orainchen ziaken
abestutzera.
- NIKASIO Bañan, ¿bai aldaki?
CHOMIN Ori galdetzen nikan nik ere.
NIKASIO Ua azkar, ia zer egiten duben, bañan ez akiyokala esan
On Braulio-ri zein dan.
CHOMIN (*Braulio-n gelan sartuaz.*) ¿Zer bada?
NIKASIO Gero jakingo dek (*Chomin Braulio-n gelan dan*
bitartian jasoko ditu Nikasio-k len Karnaba-rentzat
ekarri ditun gauzak eta ura berriz agertzerako joango
da sukaldeko atera eta andik esango diyo.)
- NIKASIO **Agur Chomin.**
CHOMIN Agur, gero arte. (*Atia erekitzen dubenian, entzungo da*
ezkalleta aldetik Braulio-n ojua.)
- BRAULIO ¡Nikasio! ¡Nikasio!
CHOMIN (*Chomin-ek ikusiko du zein dan eta sartuko da*
Nikasio-ri esatera.) Nikasio! Nagusiak deitzen dik.

XV^{en} IRUDIA
NIKASIO, BRAULIO, JULIANCHO ta bi gizon

Nikasio biurtuko da sukaldetik eta joango da ate ondora.
Braulio, oso larri, sartzen dan garai berian.

- BRAULIO ;Nikasio! ;Nikasio!... ua... ua...
- NIKASIO ;Zer du jauna?
- BRAULIO Ua... ua azkar laguntzera.
- NIKASIO ;Laguntzera? (*Juango da Nikasio ta ešeriko da Braulio.*)
- BRAULIO ;Au gertaera! bañan ;au gertaera! Agur nere asmuak... agur nere pozak... agur betiko nere ametz gozuak... agur, agur. (*Negarrez.*)
- NIKASIO Sartu poliki poliki. (*Asalduko dira bi gizon, bat sotana-z jantziya, ekarriyaz Elizako alki (silla) batian etzanda Juliancho zuri-zuri korde gabe: jarriko dute erdiyan.*)
- BRAULIO ;Oraindik ez da beraganatu!
- NIKASIO (;Zer gertatu ote da?)
- BRAULIO Eman aize, eman aize. ;Alperrik da! ;Alperrik da! ;Oyeratu zagan! Alcha berriz eta ereman ezazute nere oyera. (*Eramango dute Braulio-n gelara gelditurik au bakarrik.*) ;Nere Meza ederra!... ain ederki zijuana... ;orrach! dana galdu... ;Zer esango du Alkatiak! (*Aterako dira bi gizonak Braulio-n gelatik eta irtengo dira.*)
- NIKASIO (;Bai ote daki zein dan?)
- BRAULIO ;Zer esango du erriyak Elizan onelako iškanbilla jarri ta?... ;ta Mateok?... bañan Alkatiak, Alkatiak...
- NIKASIO ;Bai aldaki ori zein dan?
- BRAULIO Jakingo eztet bada. Mateo-n abeslariya!
- NIKASIO (Ez daki ezer.) Jauna, ;zer gertatu da?
- BRAULIO Nik etzekiat, Nikasio. Ederki ziaken meza guztiya ta gaste orrek abestu biar zubenian, sartu dituk bi baserritar, galdetu ditek nizaz, eta esan ziak zarrenak gaztiak abestu biar dubela.
- NIKASIO (Emen izandu dianak.)
- BRAULIO Nik galerazi ziyuat, eta agindu ziot Juliancho-ri abestutzeko. Julian astea dijuala etorri dek baserritar ura, alcha dik eskuan zeraman makilla, ;animali arrek! jo buruan eta zerraldo botadik lurrera...

NIKASIO ;Juliancho gizarajua!
BRAULIO Gero... etzekiat nik zer gertatu dan. Jaso ditek lurretik... así dek jendia marmaizuan... ni erriyetan... baserritarra berriz marruaz. Bialtzen asi gaituk bañan ;astu arrek! eldu niok lepotik eta... ;uste nikan galdua nitzala! Nolabait ere azkatu nak eta Juliancho onera ekartzeko esanaz etorri nak itzuli nola ez dakidala.

NIKASIO ;Gizarajua!... Eta ;ez aldaki zein diran baserritar oyek?

BRAULIO Ez, Nikasio.

NIKASIO Beorren oso esagunak dirala esan dute bada.

BRAULIO ;Nork?

NIKASIO Biyak... lenchiago emen izan dira.

BRAULIO ;Emen? ;nere echian?

NIKASIO Bai, ta derriorrian amaiketakua atera naute.

BRAULIO ;Amaiketakua?

NIKASIO Beorrek sartu-arazi duben lukainka jan dute.

BRAULIO ;Ori ere badegu? Nikasio ua beriala Alkatia billatzera ta arrapatu ditzala gizon oyek?

NIKASIO ;Nun?

BRAULIO Nunai. ;A! ;aurrian baneka orain zarrena!... meza galdu, lukainka jan... Arrapatzen badet esku artian puskatuko det. (*Erneatuba dabillega entzungo da len bezalako oju aundi bat.*) ;;Ai María!!

NIKASIO Emen dira...

BRAULIO ;Zein? ;zein?

NIKASIO Beak.

BRAULIO (*Oso larri.*) Ez datozela, ez datozela. (*Karnabak atia makillaz juaz.*) ;;Ai Maria!!

BRAULIO Ez ereki Nikasio... ;ai ama! ;ai ama!

XVI^{en} IRUDIA

NIKASIO, BRAULIO ta KARNABA

KARNABA (*Karnaba-k erekiko du atia ta sartuko da barrena geldituaz atzian.*) ;;Ai María!!

BRAULIO *Nikasio-n atzian gorde nayian eta oni bultziaz.*)
Nikasio bialtzak ori...

KARNABA ;Egun on echekuak.

NIKASIO Jauna, ni izutzen naiz.

BRAULIO ;Ago išilik... esan akiyok ez naola.

NIKASIO On Braulio ez dago echian... ez... ez dago echian. (*Itz oyek esan bitartian, berenganatukoda Karnaba oso geldirikan eta chistu juaz jarrikoda Nikasio-n aurrian anka zabalik, eta eskuan dakan makilla igoko du besopera. Ikusirik Nikasio-k makilla, ikaraz beterik igaz egingo du diadarka eta Braulio nola zegon arri elduta eroriko da lurrera geldituaz belauniko Karnaba-ren aurrian eta era onetan egongo da bigarren aldiz egun on esan artian.*) ¡Ai! ¡ai! ¡ai!... neri ez, neri ez...

KARNABA ¡Egun on!

BRAULIO (Ez neretzat.)

KARNABA ¡Egun on!

BRAULIO (*Alchiaz.*) Bai zuri ere.

KARNABA Ba-zenduben ordu erantzuteko.

BRAULIO Zuk erantzun biar nazu. ¿Zertara zatoz onera?

KARNABA ¡Ja! ¡ja! ¡ja!... ¿ni? ¡ja! ¡ja! ¡ja!

BRAULIO Deabruen bat da au.

KARNABA On Braulio, bi itz egin biar ditugu.

BRAULIO ¿Nik zurekin?... ezta bat ere. ¿Zein zera zu?

KARNABA Ni Tariña-ren aita.

BRAULIO Zer Tarin ta zer chepech. Zuaz nere ehetik.

KARNABA Nai badet.

BRAULIO (*Pizkabat gordinduaz.*) ¿Zein zera zu Eliza-n iškanbilla ura jartzeko, nere meza berriya ondatzeko, lukainka jateko ta eche onetan lotsagabe sartzeko?

KARNABA Išo, zergatik lotsagabia zu zera.

BRAULIO Zu.

KARNABA (*Makilla erakutziyaz.*) ¡Chist!

BRAULIO (*Erneatuba.*) ¡Astua!... bezin astua!

KARNABA ¡E!... ¿Ori ere bai? (*Itzul egingo du Braulio-k armoniun-en atzetik ate aldera Karnaba ondorendik dubela; erekiko da atia eta sartuko da Alkatia.*)

BRAULIO ¡Ai! ¡ai! ¡ai!... zaude geldi... zaude geldi!...

KARNABA ¿Ni astua e? astinduko zaitut.

XVII^{en} IRUDIA

BRAULIO, KARNABA, ALKATIA gero NIKASIO

ALKATIA: ondo jantziya, kapa, sombrero ta agintzeko makilla eskuan. Geldituko dira Alkatia ta Braulio atzian, Karnaba aurrian ezkerretan.

ALKATIA¹ ¿Zer da au?
 BRAULIO Alkate jauna lagundu benau
 ALKATIA Bañan ¿zer gertatzenda emen?
 BRAULIO Jauna, nik ez dakit. Orrek ditu kulpa danak. Deabruen bat da ori.

ALKATIA ¿Zer egin dizu bada?
 BRAULIO Meza ondatu, abeslariya jo ta danen ezkertzat, ikusi du, ni ere jo egin nai ninduben.

ALKATIA ¿Au alda Elizan abeslariya jo dubena?
 BRAULIO Bai ori bera.

ALKATIA Ondo dago. (*Karnaba-ri.*) ¿Zein zera zu?
 KARNABA Lukas Egia, ez-izenez Karnaba.
 ALKATIA Etzera zu chori charra. Billatuko dizut nik kayola.
 BRAULIO Sartu beza bai kayolian.
 KARNABA ¿Ni? Zu lenago sartuko zaituzte; gizon petrala.
 ALKATIA Zaude išilik lotsagabia. ¿Zertara joan zera zu Eliza-ra?
 ¿Zertara zatoz orain onera?

KARNABA Oribera jakin nai det. Zertara ekarri gaituben orrek.
 BRAULIO ¿Nik?
 KARNABA Bai zuk. Ainbeste alegiñakin On Mateo-n bitartez ekarri gaituzu eta ¿zertako?... nere semiaren orde bestea bat jartzeko.

BRAULIO ¿Zure semia?
 KARNABA Bai nere semia, On Mateon abeslariya.
 BRAULIO (¿Onen semia Mateo-n abeslariya? ¿Zein daba bestia?
 ALKATIA ¿Zer diyozu gauz aberi?
 BRAULIO Itz bat ez detala ulertzen. Zergatik orren semia baldin bada Mateo-k bialtzen dirana, ¿zein da bestia?

KARNABA Zuk jakingo dezu.
 BRAULIO Zer jakin biar det nik.
 KARNABA ¿Nolatan eraman dezu bada Elizara?
 BRAULIO Berak esan naubelako Mateo-n esanez zetorrela.
 KARNABA ¿Ori ere badegu?... ¿non da ergel ori?... garbituko det.
 ALKATIA ¿Ez aldezu asko burua puzkatziakin?
 BRAULIO Alkate jauna. Ori onela baldin bada ondo irabaziya du. Gezurretan bestez azaldu nayian, neri meza ederra galdu?... nik ebainduko det.

ALKATIA Ez batek eta ez bestiak. Jakin dezagun zein dan. ¿Non dago?

BRAULIO Nere oyian... zapalduko det!
 KARNABA (*Braulio juango da gela aldera ta Karnabak elduko diyo besotik.*) Laga neri, ekarriko det nik.

¹ Ezkerretik ezkubira: Karnaba, Alkatia, Braulio.

BRAULIO Ez, neri. (*Asiko dira biyak alkarri galasten eta onetan erekikoda atia ta asalduko Nikasio.*)

BRAULIO} KARNABA ¡¡¡Emen da bera!!! (*biyak ukabilla alchata jotzeko asmoakin.*)

KARNABA Ez da au.

BRAULIO Nikasio da.

NIKASIO ¿Zer da emen?

BRAULIO ¿Zer egiten du gazte orrek?

NIKASIO Beraganatu da ta ondo dago. Artu du salda ta Jerez piškabat.

BRAULIO ¿Zer salda ta zer Jerez!... datorrela emango diyot nik biar dubena.

KARNABA ALKATIA ¡A zer kankarrekua!
Len ere esan dizutet eta zaudezte geldirik biyak. (*Nikasio-ri.*) Ekarri ezazu gazte ori.

NIKASIO ¿Zer da naste au? (*Nikasio joaten danian geldituko dira Alkatia ate onduan atze aldetik. Braulio erdiyan ukabilla alchata Karnaba ezkerretan ate aurrian urruti samar makilla dantzatuaz.*)

XVIII^{en} IRUDIA LENGUAK, JULIANCHO ta bukaeran TARIÑA

Sartuko da aurrena Nikasio ta ondoren Juliancho

NIKASIO Emen dator.

ALKATIA ¡Oi! ¡nere semia!

JULIANCHO ¡Oi! ¡nere aita! (*Oso larri.*)

ALKATIA¹ (*Lastanduaz.*) ¡¡Juliancho!!

BRAULIO}

KARNABA ¿Alkatiaren semia?

BRAULIO (*Nikasio-ri.*) ¿Ori alda Mantoniren senargaya?

NIKASIO Bai.

BRAULIO (*Buruari elduaz samintazun aundiyakin.*) ¡Ederra egin det! Galdu det nere alabaren ezkontza.

ALKATIA ¿Miñik ba aldezu?

BRAULIO² (*Alkatia-ri.*) ¿Oñazeik bai aldaka?

ALKATIA Ez ez, ez daka **ezer?**

BRAULIO Juliancho ¿Noletan joan zera zu abestutzera Elizara?

¹ Ezkerretatik eskubitara: Karnaba, Braulio, Nikasio, Alkatia, Julian.

² Karnaba, Nikasio, Braulio, Alkatia, Julian.)

JULIANCHO Nikasiok esan nau, eztakit nik zein naizela esateko, ta abestutzera juateko ta...

BRAULIO ¿Onek?

KARNABA (*Nikasio-ri bultz aldi bat emanaz.*) Zu kankullu ¿zer asmokin esan dezu ori?

NIKASIO ¿Nik?

BRAULIO (*Karnaba-k bezela bultziaz.*) Y berritzu ¿zertako esan nak gezurra?

NIKASIO ¿Nik?

JULIANCHO (To, to, nere bipestakuaren ordaña.)

ALKATIA Bai zuk, jakin biar degu zertan ibilli zeran. Gaur kartzelara eraman artian naspilla au jarri dubena, ez naiz geldituko.

BRAULIO Itz egin zak, itz egin orain.

NIKASIO Jauna, obe det išildu.

KARNABA (*Nikasio-ri lepotik elduaz.*) Itz egin-araziko at nik.

NIKASIO ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

ALKATIA }

BRAULIO Geldi gizona, zaude geldi.

NIKASIO Zu astua, ¿lukainka muturra naizela uste aldezu onela estutzeko?

KARNABA Itz egintzak agintzen ditekanean.

NIKASIO ¡Ori aberia ori!... Emen gertatu dana da Nik nastu ditudalako Juliancho-ren ta On Mateo-ren eskutitzak nagusiyak artu dubela Juliancho On Mateo-n abeslarizaz.

JULIANCHO (¡Ai ama! ai ama!... orain berriz nigana...

BRAULIO (*Nikasio-ri*) ¡Ago išilik mutil!

NIKASIO Zintzurra onela estutu ezkerro, zer-edo-zer atera biar.

ALKATIA ¿Zer eskutitz da ori?

BRAULIO Ez... ezer ez... ezer ez...

ALKATIA Ekatzu, zer dan jakin nai det.

BRAULIO (*Nikasio-ri.*) ¡Ederra egin diagu! ¡Ilkoat! (*Patrikatik eskutitza atera ta emanaz Alkatia-ri.*) Tori

JULIANCHO (¡Ai Mantoni, zuregatik au lotsa!)

KARNABA (¿Zer maratilla dago emen?)

BRAULIO (*Nikasio-ri Alkatia-k irakurritzen duben bitartian.*) Soldata artu ta beriala alde egin biar dek eche onetatik. Ik jarri dekan naspilla.

NIKASIO Nik ez, beorrek.

BRAULIO Ik, ik, ua emendik. (*Joango da Nikasio atze aldera.- Alkatia-k irakurri ondoren gordeko du patrikan eskutitza. Braulio asiko zayo izketan motel-motel*

esagutu nayian ezkontza orretan artu duben asmoa, bañan ikusirik ezer ateratzen ez diyola bukatuko du azarre Alkatia-ri aurria artu nayian.) Badakizu ori zer dan... gaztien gauzak... chorakeriyak... bañan nik gogor artu ditut... an biali det neska izebaren echera... ta mutilla esagutu izan banuben arrunt juango zan emendik.

JULIANCHO
ALKATIA

(Artu biar det nik oraindik beste kankarrekoenbat.)
(*Braulio-ri*) ¿Bai e? Bada nik ere zerbait egingo det. (*Asiko da izketan azarre antzian bañan nola esagutu duben Braulio-n asmua alaituko da bukaerako ta azkeneko itzak esango ditu par-irriyan.*) Juliancho: Emen zu zera kulpa dubena. Zuk ekarri dituzu gaitz guztiyak eche onetara. Oker oyek ordaintzeko, ta geyo chorakeririk egin ez dezazun, bigar bertan joango zera *Bikariyuaren* echera paper billa... Mantonirekin ezkontzeko... (*Braulio-ri*) zuk nai badezu.

BRAULIO
ALKATIA

¿Egiyetan?
Bai. (*Alkatiak luzatuko diyo biyari eskua ta alkartuko dira irurok eskui aldian*)

NIKASIO

¡¡Aupa!! Au poza artu biar du Mantonik. (Erekiko da atia ta sartuko da TARIÑA.)

TARIÑA
BRAULIO

Aita, ¿nun baskaldu biar degu gaur?
¿Baskaldu? Emen, danok emen. Nikasio, ua Mantoni-n billa.

NIKASIO
JULIANCHO

¡An niak laišterka!
(*Nikasio-gana joanaz.*) Datorrela, datorrela aguro, Nikasio.

ALKATIA

Eta zure meza berriya oyen ezkontzan entzungo degu ondo abestua.

BRAULIO
KARNABA
ALKATIA
BRAULIO
DANAK
BRAULIO

¡Bai orišen!
Etorriko al naiz ni ere?
¿Zu?... bai bañan makillik gabe.
Guazen baskaltzera.
(*Atzeatuaz danak.*) ¡¡Guazen!!
(*Aurrian Braulio.*) ¡Ai biyotza! ¡¡Asmatu dezu!!